

Bilbon, 2000.eko urriaren 27an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
M. Azkarate,
P. Charritton,
X. Diharce,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
B. Oihartzabal,
P. Ondarra,
Tx. Peillen,
J. San Martin
I. Sarasola,
J. M. Satrustegi,
Andres Urrutia
eta P. Zabaleta
euskaltzainak,
eta
J. L. Lizundia,
idazkariorde-kudeatzailea.

Plaza Barriko egoitzan bildu da Euskaltzaindia, 2000.eko urriaren 27an, hileroko batzarra egiteko. Goizeko hamarrak eta erdietan eman zaio hasiera bilerari. Ezkerreko zutabea jasotzen dira bilduen izenak. Ezin etorria adierazi dute: P. Altuna, L. Davant, P. Salaburu eta A. Zavalak.

Lehen partean, J.L. Lizundia, idazkariordea, aritu da idazkari lanetan, P. Goenagak lehen orduan etortzerik ez baitu izan.

Aurreko batzar-agiria onartzea.

Agiriari ez zaio oharrik egin eta ontzat eman da bere horretan.

Euskaltzainburuaren hitzak.

Hasteko, J. Haritschelhar euskaltzainburuak, Rikardo Badiola euskaltzain urgazle eta argitalpen eragileari ama zendu zaiola eta Euskaltzaindiaren dolumina adieraztea proposatu du. Onartu da.

Andima Ibinagabeitiaren izkribuen dohaintza

Atzo, Miren Lorea eta Miren Maitena Mentxaka Ibinagabeitia andreak Euskaltzaindiaren egoitza bisitatu zutela aditzera eman du euskaltzainburuak. Zuzendaritzak errezibitu zituen. Andima Ibinagabeitia euskaltzain urgazle eta idazlearen ilobak bere osaba zenaren artxibo pertsonalaren dohaintza egitera etorri ziren. J. Haritschelharrek euskaltzainburu gisa, esker ona erakutsi zien, euskal idazle handiaren jatorrizko eskuizkribuak erakundeak maitasun eta arreta osoz zainduko dituela aginduz. Azkue Bibliotekan ikertzaileen esku izango dira dokumentu horiek.

Euskaltzain ohorezkoen izendapenak

Euskaltzainburuaren erabakiz, gai ordena aldatuz, lehendabizi, Araategiaren 39. artikularen arabera, euskaltzain ohorezko berriak izendatzeari ekin zaio.

Jose Antonio Retolaza Ibarquengoitia euskaltzain urgazlea izendatzea proposatzen du Zuzendaritzak, bere curriculum eta merezimenduak eranskineko agiritik irakurritz. Aho batez izendatzen da.

Pierre Andiazabal euskaltzain urgazlea proposatzen du segidan Zuzendaritzak, haren merezimenduak eta beste irakurritz. Aho batez onartzen da izendapen hau ere.

Junes Casenave-Harigile jauna ere proposatzen du Zuzendaritzak. Hau ere aho batez izendatzen da.

Suzuko Ainhoa Tamurua euskaltzain urgazlea proposatzen da hurrengo. Aho batez izendatzen da.

Xabier Kintana eta Andres Urrutia euskaltzainek Jan Braun poloniar hizkuntzalaria aurkezten dute. Aho batez izendatzen da.

Xabier Kintana eta Andres Urrutiak Bittoriano Gandiaga Artetxe euskaltzain urgazlea proposatzen dute. Aho batez onartzen da.

Jose Maria Satrustegi, Patxi Ondarra, Patxi Zabaleta, Andres Iñigo eta Pello Salaburuk Mariano Izeta Eleizalde euskaltzain ugazlea proposatzen dute. Aho batez onartzen da.

JAGONETerako erantzule taldea

Donibane-Lohizunen onartutako JAGONET egitasmoaren jardupidea garatuz, erantzule taldea osatzeko, Beñat Oihartzabal eta Miren Azkarate sailburuez gain, honako hauek proposatu ditu batzorde bakoitzak. Hiztegegintzatik Ibon Sarasola eta Jose Antonio Aduriz; Gramatika batzordetik, Patxi Goenaga eta Jesus Mari Makatzaga; Onomastikatik Mikel Gorrotxategi eta Patxi Salaberri Zaratiegi; Euskara Batuko batzordetik Pello Salaburu. Proposamen hauek bere horretan onartu dira.

Eskuartekoak

Literatura Ikerketa azpibatzerdeak proposaturik eta atzo Zuzendaritzan aztertu ondoren, BBK eta Euskaltzaindiaren arteko literatura sariketarako jaun-andre hauek hautatu ditu batzarrak: *Txomin Agirre* eleberri sarirako, Gorka Aulestia, Txomin Peillen eta Ana Toledo; *Toribio Alzaga* antzerkirako, Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu; *Felipe Arrese Beitia* olerki sarirako, Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi Imaz, eta *Mikel Zarate* saiorako, Xabier Altzibar, Adolfo Arejita eta Andolin Eguzkitza.

Bestalde, Garate jaunaren gonbidapen gutun batekin, azaroaren 8an eta 9an, Donostián, izango den *II. Multimedia eta Gutxiengo Hizkuntzen Nazioarteko Topagunarako* egitaraua banatzen zaie euskaltzain osoei.

Hizkuntza arauak: Hiztegi Batua

Miren Azkarateren txostena: "Komunikabideen lantaldea: proposamena"

Aurreko bilkuran agindu bezala, Miren Azkaratek *Hiztegi Batuaren* bigarren itzulirako komunikabideen esparruko hitz premiazkoenen zerrenda prestatuko duen lantaldeari buruzko txostena aurkeztu du. Lantalde honek ekainean egin zuen sorrera bilkura eta euskal komunikabide gehienetako ordezkariak osatua da. Txostenaren arabera, jadanik antolatua dagoen lantalde honek ez luke arazo handirik izango oinarritzko terminoen zerrenda aurkezteko. Hala ere, Iparraldeko jenderik ez denez, osatu egin behar harko litzateke lantalde hori. Bestalde, lanerako prozedura zein izango den ere zehaz-

ten da txostenean. Kontua ez da erdal terminoen zerrenda bat euskaratzea. Batzordeari berari dagokio proposamenak egitea. Gero, ohiko bidea jarraituko dute proposamenok: Euskara Batuko batzordetik igaro ondoren euskaltzain osoen esku jarriko dira.

Euskaltzainek ontzat eman dute proposamena, Iparraldeko ordezkari pare bati leku eginez beti ere: *Xorroxin* eta *Euskalerria* irratikoei deitzea ontzat eman da.

Andres Urrutiaren txostena: “Administrazio-zuzenbidea *hiztegirako lantaldea: proposamena*”

Urrutia jaunak ere, aurreko bileran eskatu zitzaiona betez, ekarri du bere txostena. Urrutiaren ustez Euskaltzaindia ezin da lan handi ikaragarri batean sartu. Kasu honetan ere, “helburua ez da hiztegi bereziak oso-osorik moldatzea, baizik eta hiztegi-gintza berezi horretatik hiztegi-gintza batu eta orokorrera zer ekarri zehaztea eta berori ustiatzea, euskal gizarteak izan ditzakeen premiak aintzat hartuta”. Sortzea proposatzen den lantaldeak izango lukeen betebeharra “euskal hiztegi-gintzaren arlo berezietan bizi dena, neurri *neuratuan* bederen, guztion plazara ekartzea” litzateke. Berehalako helburua 400-600 hitzeko zerrenda bat prestatzea litzateke, *Hiztegi Batua*ren bigarren itzulian txertatzeko. Bestalde, txostenean hirugarren epe baterako proposamena ere egiten da: a) aurreko iturburuak (EEBS batik bat) gaurkotu eta osatzea eta b) bertara bildu gabekoa molde egokiaz zertu eta lotzea. Corpusa eta datu basea osatzea, alegia. Azkenik, lantaldea nola osatu, non kokatu, nola finantzatu eta zer egutegirekin lan egin zehazten da txostenean.

Eztabaida luzea piztu da ondoren. Sarasola jaunak zalantzan jarri du hau ote den momentua horrelako lanei ekiteko. Gutxieneko garantia batzuk behar dira, haren ustez. Berak uste zuen 200 bat hitzen kontua zela. Apaltasuna behar da. Administrazio tesuak oso gordinik daude. Bigarren itzulia amaitzerako 2008. urtea izango da, onenean. Orduan agian administrazio hizkerak eta jardunak beste tankera bat izango du. Momentu honetan, gaurko corpusak oso interes gutxi du, oso premisa badaezpadakoak diutelako. Hortaz, ahalik eta egitura txikienarekin moldatu beharko luke Euskaltzaindiak.

Urrutia jaunak erantzun dio esanaz kontua ez dela 200 ala 800 hitz, baizik behar dena. Sartzan direnak ondo kokatuak ematea da kontua. Corpusarena hirugarren fase-rako izango litzateke. Neurriarekin ez du arazorik. Zerrenda ez da erdaratik abiatuta egingo, euskaratik baizik. Zerrenda egitea bada kontua, Azkaratek aurkeztutako proiektuaren oso antzekoa da berak aurkeztzen duena. Beraz, denetan arazo bera dago.

Miren Azkaratek dio zerrenda osatzean herritarrek behar dituen hitzak biltzen aha-legindu behar dela eta ez hainbeste administrazioan erabiltzen direnak jasotzen. Corpusa osatzeko orduan OEH bera ere geratu zen lekuan geratu zen. Orduz gero gauza onak idatzi dira. Horiek bildu egin beharko lirateke.

Patxi Zabaletak gai honen premia azpimarratu du. Premiok jende guztiarenak dira ez berenak bakarrik. Egunero idazten diren kontuak badira. Corpusa egitea behar bada ez da hain beharrezkoa, baina zenbait hitzen premia handia da, administrazioarekin inoiz baino harreman gehiago baitu jendeak egun.

Sarasola erabat bat dator premiekin. Baina horrek ez du esan nahi itsumustuan aritu behar denik. Euskaltzaindia ez da nor hitzak asmatzeko. Hitzak babestea dagokio, ez besterik. Umila izan behar du. Irizpideak eman ditzake baina hortik aurrera gauza gutxi. Presa eta premia ez da nahikoa hitz bat onartzeko. *OEH* 1968an geratu zen,

hortik aurrera, Mitxelenaren arabera, anabasa ikaragarria baitzegoen. Gero, gauzak bere onera datozenean, orduan izango da garaia hitzak geureganatzeko.

Urrutiak dio ez duela proposatu *cohecho*, *arresto mayor* eta *menor* eta horrela-koen ordainak ematen hastea. Askoz apalagoak direla haren asmoak. Premiak premia, fidagarritasuna da ziurtatu beharrekoa: inork ez du hitzik asmatuko. Hitzak bere tesuingurua izango du eta testigantzak bilatuko dira. Berak nahi duena da bigarren fase honetan modu sistematikoan jardutea.

Satrustegi jaunak bere kezka azaldu du. Behin eta berriro aipatzen dira egunoro-ko premiak. Zein dira horiek? Euskaltzaindia on da zerbait erantzuteko. Hala ere, profesionalen lana aitortu eta ontzat eman behar da. Euskaltzaindiak argi eduki behar du zein mailatan erantzun behar dien jendearen eskariei.

Urrutia jaunak proposatzen duena da taldetxo bat biltzea eta ikustea ea gauza den onartutako irizpideen barruan eta horien arabera zerrenda bat onartzeko. Ez dago ur handietan sartzeko irrikarik. Alde horretatik, proposamenaren lehenengo atalari eutsiko lioke (bigarren itzulirako zerrenda prestatzeari, alegia) eta bigarren atala (corpus eta datu base osoagoa) geroko utziko luke. Lan horretarako bekadun batekin aski litzateke. Zerrenda hori egin beharrekoa ikusten du.

EEBS ez da fidagarria eta osatu egin behar litzateke. Hain zuzen, txostenean aipatzen diren XIX-XX mendeetako testuak sartzearen aldeko izango litzateke eta horretarako HAEE-rekin hitzarmen bat egin behar bada, egitearen aldeko litzateke.

Ondorioz, proposatzen den zerrenda hori prestatzeko urratsak egingo dira. Urrutiak behar diren gestioak egingo ditu corpora modu errazean osatzeko erakundeekiko lankidetzaz. Boletinak informatizaturik daude, adibidez. Finantzabideaz eta abarrez bera arduratuko da soluzioren bat bilatzen. Hirugarren fasea ez da hemen sartzen.

Barne erregelaren aldaketak

Euskaltzaindiaren Arautegian azken aldia onartutako aldaketengatik, beharrezko gertatu dira Erregeletan ere zenbait egokitzapen. Horiek bideratu nahi dira. Idazkariak gogorarazi du aurreko bileran ezarritako epearen barruan ez dela oharririk jaso, Jose Antonio Aranaren bat baizik. Horrenbestez, jadanik euskaltzainek ezagutzen duten testua bozkatzeko proposamena egin da, banan-banan:

100. art. 1.: "... *arabera*" eta "*instituzio*" hitzen tartean "*Herri Aginte*" sartzea onartu da. Beraz, testu hori honela geratu da:

"Euskaltzaindiak bere Arautegiaren 1.j. artikulua arabera, Herri Aginte, instituzio, elkarte edo gizabanakoentzat..."

14.1 artikulua ezabatzea onartu da. Horrenbestez, lehengo 14.2 dagoen bezala utzi denez, 14 zenbaki soilarekin joango da:

14. art. Inoiz edo behin, Zuzendaritza bil daiteke ordezkari, batzordeburu edota egitasmoen arduradunekin, gaiak hala eskatzen badu.

30. art. bis baten gehiketa proposatu da:

30.bis

1. Euskaltzaindiak Bilbon du egoitza. Egungo etxea: Plaza Barria, 15ean dago.
2. Hileroko osoko bilkurak, birik behin, bederen, egoitzan izango dira.
3. Erakundearen egitasmoak egoitzan kokatuko dira, ahal delarik.

Bigarren atalak eztabaida sortu du eta azkenean bozketara jo da. Honako hau izan da emaitza: 5 proposamenaren alde; 12 kontra. Horrenbestez, delako gehiketa hori hiru puntukoa izan beharrean bikoa izango da:

30.bis

1. Euskaltzaindiak Bilbon du egoitza. Egungo etxea: Plaza Barria, 15ean dago.
2. Erakundearen egitasmoak egoitzan kokatuko dira, ahal delarik.

57.2 artikularen 6. paragrafoaren amaieran testu hau gehitzea onartu da:

“Sarrera Erakundearen egoitzan izango da, edo, sartzten den euskaltzainaren proposamenez, haren jaioterrian edo bere eskualdearen nortasuna kontuan izanda, hiruburu edo leku esanguratsu batean”.

Ondoren, 89. artikularen aldaketa aurkeztu da. Honako testu hau proposatzen zen:

89. art. “Euskaltzaindiaren izenaz plazaratzen diren argitalpenen ardura, organigramaren arabera, Zuzendaritzari dagokio. Eginkizun hori Argitalpen batzordearen bidez gauzatuko da eta honela osatuko da batzordea: Zuzendaritzakideak eta beste bi kide. Idazkari lanak, Argitalpen eragileak egingo ditu”.

Lehendik onartua zegoen testua honako hau da:

89. art. “Euskaltzaindiaren izenaz plazaratzen diren argitalpenen ardura, organigramaren arabera, Zuzendaritzari dagokio. Eginkizun hori Argitalpen batzordearen bidez gauzatuko da eta honela osatuko da batzordea: euskaltzainburua, euskaltzainburordea, idazkaria, diruzaina, Iker eta Jagon sailburuak, batzordeburuak eta, idazkari lanetan, Argitalpen eragilea.”

Idatziz oharririk aurkeztu ez den arren, eztabaida bizia sortu du aldaketa proposamen honek. Euskaltzainek ez dute argi zein den une honetan indarrean dagoen araua. Bestalde, praktika ere ez dator bat arauarekin. Euskaltzainek bozkatu beharrekoa zer den eta ordezkatu nahi den erregela zein den argi ez dutenez, puntu hau hurrengo bilkurarako utzi da, oraindik ere eztabaidatzeko dagoen 11. artikulua bezala.

Eta ordu biak eta erdiak direla amaitutzat eman da bilera.

Euskaltzainburuak

Idazkariak

Jean Haritschelhar

Patxi Goenaga

* * *